



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Sexu heziketa emozioetan hezte da

Sexu heziketa, sexua balore gisa hartuta hezte da, interakzio positibo eta sinergikoak sustatzeko helburuarekin. Eta herritarrak garen heinean, kalitatezko sexu heziketa jasotzeko eskubidea dugu, baita berau aldarrikatzeko ere. Sexu heziketa emozioetan hezte da, beraz, ezinezkoa da ez egitea. Hau da, etxean, eskolan, kalean, plazan eta abar une oro sexu heziketa egiten ari gara, baina, leku desberdinetatik, helburu ezberdinekin eta emaitza ez da beti hezkidetzaila izango.

Sexua eta sexuak nola ulertzen ditugun erabat baldintzatu du egiten ari garen heziketa horretan. Zoritxarrez, mendeetan zehar, sexua belaunaldiak sortzeko instrumentu bat kontsideratu izan da. Ondorioz, sexua genesiaz (hasiera), generoz eta genitalez osaturik dagoen ideia heredatu dugu, *genus* paradigma, hain zuzen. Logika zahar horrek sexua genitalekin egiten duguna dela sinestarazi digu, koitoa bidezko jokabide erotiko bakarra bihurtu du eta eredu maskulinoa zentroan jarri du. *Genus* paradigmatik *sexuz* paradigma ezkutatu du.

Horren aurrean, *sexuz* paradigmatik koitozentrismoaren, sexismoaren eta heteronormaren aurkako diskurtso sexologikoa erai ki da. Betiere ahaztu gabe, lehenengo kasuan, gainditu behar duguna zentrismoa dela eta ez koitoaren praktika bera. Negatiboa dena hori egin beharra edo besterik ez egin ahal izatea da. Ondorioz, ez dugu koitoa buruan soilik praktikatzen dugulako, beste ezeri buruz ez dugulako entzuten baizik. Azken finean, sexua tabua eta bekatua dela ikasi badugu, zikina dela transmitituko dugu. Sexua moral bikoitzetik epaitzen badugu, neska eta mutilen arteko harremana arrisku-

tsua eta asimetrikoa dela irakatsiko dugu. Azkenik, sexua balore bat dela sentitzen badugu, naturala dela adieraziko dugu.

Sexu heziketa sexu aniztasunean hezte da. Koitoari eta orgasmoari buruz hitz egin beharrean, gorputz guztiari eta azalaren egarriari buruz jardutea da. Mutilen neurri gabeko desioa jorratu beharrean, neskak eta mutilak beraien desioen arduraz jabetzea da. Hala nola, ugaltze paradigma gainditzea eta hezkidetzatza egitea esan nahi du. Hezkidetzatza egiten dugunean sexu heziketa egiten ari gara eta alderantziz. Baina, egiten dena, orokorrean, berandu egiten da, eta arriskueta eta urgentzietan zentratzen da, hau da, suak itzaltzen dira. Adibidez, *bullying* homofobia, nesken gutxiespena, planifikatu gabeko haurdunaldiak... Garrantzitsua dena bigarren plano batean zokoratzen da eta ez

dira baloreak kultibatzen. Ondorioz, sexuen arteko konfiantza falta eta prebentzioa sustatzen dira. Baina prebentzioarekin arriskuak saihesten dira, heziketarekin, ordea, baloreak kultibatzeaz gain, prebentzioa egiten da.

Funtsean, sexu heziketaren helburua, norbanako sexudun bakoitzak bere burua deskubritzea, ezagutzea, onartzea, kudeatzea, maitatzea eta gozatzea da. Aldi berean, sexuak beraien artean deskubritzea, ezagutzea, onartzea, kudeatzea, maitatzea eta gozatzea da. Horrez gain, bada ere kulturak eta gizarteak segregazioa, diskriminazioa eta sexuen arteko gu dak sexuen arteko elkarbizitzarekin eta sinergiarekin ordezkatzeta. Horretarako, ezagupen sexologikoa ikasi eta ulertu beharra dago, zorrotza izan behar da eta transmititu eta demokratizatu egin behar da. •



Orokorrean, egiten den sexu hezkuntza arriskueta zentratzen da. GAUR8